

BERRIGARA

80. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1992, urriak 16

**ELOSUKO
FERIAN
KALITATE
HAUNDIKO
GANADUA ETA
KOTXE ILADA
LUZEAK**

**UDAL
ZERGEK
%7KO IGOERA
IZANGO DUTE
DATORREN
URTEAN**

KIROLAK

**BIXENTE
PAGALDAI
DONOSTIAKO
MARATOIKO
ERREGE**



**Bergarako
Odol Emaleen
Elkarteak
25 urte**



OPEL ASTRA BERRIA

**POTENTZIA
ADIMENTSUA**



OPEL

**TALLERES
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn:
Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK. HOBEAK ESPERIENTZIAZ.

Mahasterreka, 8

ETXAGI

T a b e r n a

☎ 76 53 12

**Berriz ere
eguneko
menuak
ematen
ditugu**

- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Astebukaeran kartara
- ✓ Aurrez eskatutako bazkari-afariak
- ✓ Janariak edozein ordutan

**Barra
berria
ireki dugu
goiko
pisuan**

12.30 etatik 16.30etara

16.30 etatik aurrera

Bergarako Udaleko Osasun eta Gizarte Ongizate batzordeak, **Odol Emaleen Elkarteak** orain artean egin duen lan haundia aintzakotzat hartuz, eskerrik beroenak ematen dizkio bere **25. urtemugan** eta, bide batez, herritar guztiak animatzen ditu elkarteari beren laguntza eman diezaioten


Bergarako Udala



Gizarte Ongizate Batzordea

BERRIGARA

Argitaratzailea:
 Jardun Elkarte
 Errotalde Jauregia, 20.570
 Bergara
 Tfnoa eta Faxa: 76 03 97
Babeslea: Bergarako Udala
Laguntzailea:
 Eusko Jaurlaritza
Erredakzioa
 Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
 eta Miren Josu Arrazola
Maketazioa:
 Eneko Azkarate eta Eduardo
 Mendibil
Publizitatea eta harpidetzak:
 Alex Azkarate eta Edurne
 Arenaza. ☎ 76 03 97
Erredakzio-kontseilua: Inaki
 Eraña, Gorka Elorza eta Alex
 Labaien
Kolaboratzaileak: Jose Angel
 Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
 Angel Elkorobereibar, J. M.
 Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
 Maripi Laskurain, N. Alzelai,
 Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
 Lizarralde, Monika Belastegi, M.
 Elkorobereibar, Aitziber
 Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I.
 Sorondo. ➤
Argazki laborategia:
 B. Cantero, M. Leturia, J.A.
 Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
 Garzia, D. Santos, P. Retolaza,
 Kifu eta Pol-Pol Mendizale
 Taldea.
Komikia eta marrazkiak: Josu
 Okina eta Antonio Arrillaga
Inprimategia:
 Gertu Koop. E. (Zuhillaga. Onati)
Banaketa: Txantxangorri Taldea
Copyright:
 BERRIGARA
Tirada: 3.000 ale
Lege gordailua: SS 50/ 91
ISSN: 1130-6599
BERRIGARA ez du bere gain har-
 tzen auzidkarian adierazitako esa-
 nen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
 Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
 Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

MIKEL HERZOG

Azken astean, Mikel Herzog kantari bergararrak OTI musika jaialdian parte hartuko duela publikatu bada ere, *Berrigara* hori ezeztatzeko moduan dago.

Mikel Bergaran izan dugu aste honetan. Ostegunean Angiozarren bazkaltzen izan zen, bere lagun Sebastian Zubiri eta CBS disketxeko agintari batzuekin.

Bergararrarekin hitzegiteko aukera izan genuen eta berak esan zigun bere disketxearen asmoak beste batzuk direla, alegia, musika jaialdi ospetsuan parte hartu beharrean, bere le-



hen diskoa izango dena ("Bienvenidos al paraíso" izenburukoa) He-goamerikako 15 herrialdetan plazaratzea. Esan dezagun azkenik, Mikel erabat itxuraldatuta agertu zitzaigula, ile beltzarekin.

Ez du OTI musika jaialdian parte hartuko

ITURRI ONETIK

Asmoak besterik ez

Zenbait egunkaritan irakurri ahal izan dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak 8.000 milioi banatuko dituela aurre, probintziako hainbat kirol instalakuntzetako obrei aurre egiteko. Onartuta dauden egitasmo batzuek, tartean Bergarako futbol zelai berria eta kanpoko igerilekuak, laguntzeko Diputazioak 458 milioi emango dituela ziurtatzen zuen egunkari batek. Udal agintariekin izan gara eta hori ezeztatu digute, Agorrosin inguruan egin beharreko obrak asmoak besterik ez direla esanez.

ESAN DUTE

"Buesa kontseilariak euskara arbuiatzen badu, funtsean gaztelania ere maite ez duelako da. Hizkuntza bat ederresten duenak denak ederresten baititu. Gehienik ere, erdara maite du jaun horrek, euskara ez dena".

EUSEBIO OSA
 Filologoa
 EGUNKARIA

"Euskal Herrian esnearen prezioak Europako baxuenak dira eta haragian orain dela zazpi urteko prezio berean saltzen ari dira. Halaber, barazki eta fruituen prezioak jaitsi egin dira. Horregatik baserritar asko bueltarik gabeko zulo batean sartzen ari dira".

BALENDIN GABILONDO
 EHNEKO
 GIPUZKOAKO
 PRESIDENTEA
 EGUNKARIA

ELEKTRO

ARENAZA C.B.
Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.
 San Lorentzo 19,
 Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA




ALIEN 3

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00., 19.30. eta 22.30.

Igandea: 17.00., 19.30. eta 22.15.

Astelehena: 19.30.



BATMAN VUELVE

Igandea: 11.30.



LA TAREA

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ Nork ez du **Sigourney Weaver**ekin batera sufritu filme honen aurreko bi zatitan? Ba itxura **Ripley** ajentea oraindik arriskuan dago baina ez dugu uste amore emango duenik **Alien**ekin behingoz akabatu arte. **David Fincher** gazteak zuzenduta, efektu berezi ikusgarriak zihurtaturik daude.

▼▼ **Batman** arrakastatsua bigarren zatia. Berriz ere **Tim Burton** zuzendaria lanetan eta **Michael Keaton** komiki eroiaren paperean. Aurpegi berriak, berriz, **Michelle Pfeiffer** (Catwoman) eta **Danny De Vito** ditugu. Haur eta nagusientzat.

▼▼ Moskuko Zinemaldian iaz Epaimahaiaren Sari Berezia eskuratu zuen filme mexikar honetan **Jaime Humberto Hermosillo** zuzendariak joku bitxi eta interesgarri bat proposatzen digu; bideo kamara batekin filme bat errodaztea etxean bertan. Emaizta benetan ona izango da.

Bideoak

▼ **Jardun Elkarteak** larunbat goizean haurrentzako bideo emanaldi ekingo dio, **Gremlins** zinta eskeiniatz. Goizeko 11.00etan. 25 pztz.

Deiak

▼ **Autobusak** antolatu ditu EHEk urriaren 25ean Lezon ospatuko den AEK egunera joateko. Txartelak, Arrano tabernan.

Farmaziak

- ▼ **Larunbata 17:** Puy / Morales (Arrasaten, gauez).
- ▼ **Igandea 18:** Puy / Azkoaga.
- ▼ **Astelehena 19:** Guallar / Español.
- ▼ **Asteartea 20:** Estella / Corcuera.
- ▼ **Asteazkena 21:** Mozos / Irizar.
- ▼ **Osteguna 22:** Camacho / Amezua.
- ▼ **Ostirala 23:** Puy / Morales

Ogia

▼ **Igandea 18:** Bolintxo.

FANCY

GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

ezpeleta etxea

Harizko eta kotoizko goimalako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

Ikastaroa

▼ **Salmenta Tekniken** ikastaroa antolatu du Arrasateko Ibaiarte elkarteak. Urriaren 19tik 31era bitartean. Izen-emateak: 79 87 95.

Jaialdia

▼ **Bergarako Odol Emaleen** zilarrezko eztaiak: Meza Nagusia Udal Bandarekin igandean goizeko 11etan San Pedron.

Kirolak

▼ Futbola:

• *Bergara - Unibertsitatea* (Preferente maila). **Igandean** arratsaldeko 16.00etan Agorrosinen.

• *Bergara - Urola* (2. mailako kadeteak). **Larunbatean** goizeko 10.00etan Ipintzan.

• *Bergara - Eibar* (Lehen mailako jubenilak). **Larunbatean** arratsaldeko 16.00etan Ipintzan.

• *Bergara - Aretxabaleta* (Infantil Txiki). **Igandean**, goizeko 10.00etan Ipintzan.

• *Bergara - Aretxabaleta* (2. mailako jubenilak). **Igandean**, goizeko 11.30etan Ipintzan.

Aukeran

▼▼ **Diru eta sellu erakusketa** zabalduko da larunbatean **Kultur Etxean**. Bergarako Filatelia Taldeak antolatuta, Bergarako eta inguruko herrietako bildumariak euren sellu eta diruak erakutsiko dituzte hurrengo igandera arte, esan bezala Errotalde Jauregian, ohizko orduetan.



▼ Futbitoa:

• *Futbito Txapelketa* astebukarren Kiroldegian.

▼ Eskubaloia:

• *Bergara - Bidebieta* (Senior gizonak). **Larunbatean** arratsaldeko 17.00etan Kiroldegian.

• *Bergara - Arrasate* (Gazte neskak). **Larunbatean** arratsaldeko 18.30etan Kiroldegian.

▼ Pelota:

• *Bergara - Azpeitia* (Jubenilak eta seniorrak) ostiralean gaueko 22.00etan Frontoian.

5

PROFESIONALAK

• Soroa III.a eta Armen-dariz / Ansotegi eta Al-dazabal II.a.

• Etxaniz eta Galarza III.a / Eugi eta Zezeaga.

• Gabilondo eta Garaita / Loiarte eta Alberdi III.a.

Larunbatean,
arratsaldeko 16.30etan
Udal Pelotalekuan.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g Tfnoa 76 05 01

Berrigararen oharra

Berrigararen 78. alean basur-dei buruzko erreportaia ilustratzeko, gureak ez ziren bi argazki erabili genituen, egilearen firma jarri barik.

Portadan agertzen zena, Kriseilu argitaletxearen "Fauna Iberica" izeneko enziklopediatik atera genuen, eta 12. orrialdean, "Basurdea baserri inguruetan" izenburuko erreportaia zabaltzen zuen argazkia, berriz, Plaza & Janes-en "Animales del Mundo" enziklopediatik hartu genuen.

Berrigara

EA subkontratazioaren alde

Irailaren 25eko Berrigararen irailaren 21ean izan zen Udaltzataren berri eman zen eta, tartean, Udaltzat Garbiketaren Zerbitzuak subkontratazko erabakiari buruzko informazioa. Besteak beste, zera aditzera ematen zen, Eusko Alkartasunak ez zuela erabaki hori ontzat eman

eta kontrako botoa eman zuela. Guzti horretaz EAk zera argitu nahi du:

1.- EA betidanik egon da enpresa pribatuak subkontratatzearen alde, udaltzat langilegoa gehitzea baino komenigarriagoa delakoan.

2.- Udaltzat Gobernuak ongien iruditu zaion garbiketaren enpresa kontratatatu du, bestelako alderdien eriztia kontutan hartzeke.

3.- EAk Udaltzataren bilera hasi baino bi ordu lehenago jakin zuen

Udaltzat Gobernuaren proposamenaren berri. Ordurako erabaki beharrekoa erabakita zegoen, oposizioak esango zuenaren zain egon gabe.

4.- EA subkontratazio sistemaren alde dago, baina guzti honetan izan den informaziorik eza salatu nahi du, are gehiago kontutan izanik Udaltzat Gobernuak kontratatutako enpresa azkenean geratu ziren hiru aukeretatik garestiena zela.

Kontxi Irizar, EAko zinegotzia

Aldaketak Berrigararen

Miren Josu Arrazola, irailetik Berrigararen publizitate arduradun moduan eta zenbait erredakzio lanetan jardun duena, ETBra joan zaigu. Horregatik, Alex Azkarate publizitatearen arduradun eta Mikel Elkoroberezibar erredakzio lanetan, ditugu aste honetatik aurrera Berrigarako lankide berriak.



Alex Azkarate, Berrigarako publizitate arduraduna

Tiira ba!



Josu Okino

Milaka lagun, kalitate haundiko ganadua bildu zuen Elosuko ferian


4 kilometrotako kotxe iladak Gorla inguruan

Milaka pertsona bildu ziren joan den astelehen goizeko lehen ordutik Elosun, bertako Mendiko Ganadu Feria ikusi eta jai giroa dastatzeko asmoz. Partaide ugari eta giro benetan bikaina izan zen Elosun eta izugarrizko kotxe karabana eman zen Bergaratik Elosura bidean, 4 Km. inguruko iladak eginez.

Goizean goizetik animaliak, makineria, baserriko produktuak eta postu ezberdinetan saltzen ziren beste eratako produktuak ere ikusgai izan ziren San Andres ermitaren inguruan. Antolatzaileen esanetan, "aurtengo edizioan inoiz baino kalitate hobea eman da, feria hau hartzen ari den indarraren seinale".

210 ganadu buru

Horrela, lehiaketara aurkeztzen ziren animalien marka (210 buru) eta bildutako jendetzarena ere hautsi ziren astelehenean. Esan bezala, ganaduaren kalitatea primerakoa zen eta epaimahaiak honako hauek saritzea erabaki zuten: asturiar behietan Kortaberri baserriak iaz lortu-



tako lehen saria errepikatu zuen, blonda arrazan Azpeitiako Agite baserriko Antonio Olaizolak eskuratu zuen lehen saria, pirenai kan Bergarako Behi Aldek, txarolesetan Elosuko Ixaun baserriko Jose Maria Berstaintzat izan zen trofeo eta limousinetan Elosuko Aritz-Ederragako Txomin Oruesagatik irabazi zuen lehiaketa.

Ardietan, berriz, Azkoitiko Koatei baserriko Jose Ignacio Zubizarretaren eskutara joan zen saria,

zaldietan Azkoitiko Jose Aranbarririk irabazi zuen, idi parerik onena Juan Zunkunegik aurkeztutakoa izan zen, Pako Badiolaren zezena ere saritua izan zen eta azkenik, ganadu talderik onenari zegokion saria Azpeitiako Agite baserriko Antonio Olaizolak lortu zuen.

Sari banaketa amaitutakoan, eta J.L. Gorrotxategi eta Sebastian Lizaso bertsolariei paso eman aurretik, Valentin Gabilondo Elosuko Jai Batzordeko ki-

deak Victoriano Gallastegi Bergarako alkateari gonbite hau luzatu zion: "feria egunean agertzeaz gain, Elosuk auzo alkatearekin duen problematika konpontzeko negoziazioak aurrera eramateko, auzoaren gustakoa ez den erabakia hartu baitzuen alkateak auzo alkatea izendatzera-koan".

Amaitzeko, aipatu arratsaldean Goenatxok 163 kiloko kubikoarekin orainarteko marka hautsi zuela 10 minutuko tanda batetan.

ONENA

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.


Taberna

Zublaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

□ **Gurutze Gorria**
Deba Garaiko Gurutze Gorriak 1.975/76 urtetan jaio eta 1.994an Borondatezko Ordezko Zerbitzua egin nahi duten gazteei horren berri 76 55 76 telefono zenbakian eman dezaketela jakin arazten die. Izen ematea abenduaren 31ra arte egongo da zabalik.

□ **Euskara**
UNEDek Juan Martin Elexpuru zuzenduko duen Bergarako euskarako ikastaroa antolatu du azaroaren 11tik otsailaren 25era arte. Matrikulak 8.000 pta. balio du eta izen-ematea azaroaren 7ra arte egongo da zabalik.

□ **V. Mendeurrena**
Astelohenean, hilak 12, Institutuko Ikasleen Asanbladak eta Lanbide Eskolako ikasle talde batek ez zuten jaiegunik egin V. Mendeurrenaren inguruan antolatutako ekintzen aurka protesta egiteko.



Udal zergak gora

Asteazkeneko Ezohizko Plenoan Udalak 1.993. urterako Ordenantza Fiskalen zenbait aldaketa aurrera eramatea erabaki zuen. Horrela, lehengo herri kontribuzioa eta zirkulazio zerga % 7an igotzea erabaki zen, etxebizitzaren plusbaliak orain arteko koefizientearekiko % 7an egingo du gora eta eraikuntzen gaineko zergak, berriz, % 4an.

Era berean, Udalaren hainbat zerbitzu (kiroldegia eta igerilekuak) eta ura, zaborrak... etab. % 7an garestitutako dira.

Iharduera ekonomikoen gaineko zergari dagokionez (lehengo lizentzia fiskala),

momentuz 1,3ko koefizientearekin jarraritzea erabaki zen, Diputazioak aktibitateen padroiari buruzko estudioa bidali arte (HB kontra azaldu zen bere ustez estudio hori eginga egon behar zelako).

Alderdi guztiak bat etorri ziren eskaparateen gaineko zerga eta fatxadak pintatzearena kentzeko. Eusko Alkartasuna, azken bi hauetan ezik, zergak igotzearen kontra azaldu zen. Eako zinegotzia den Garitanoren esanetan, "krisi garai honetan ezin daitekeelako ulertu Udalak biztanleei zergak % 7an igotzea".

□ **Billar**
LAMEk antolatuta, Billar Txapelketa jokatu da urriaren 17 eta 18an arratsaldeko 4retan Oilagorra tabernan. Izen emateak 500 pta. balioko du eta lehen hirurek 15.000, 10.000 eta 5.000 pta. ki sariak jasoko dituzte.

□ **Herri Batasuna**
Herri Batasunak dei egiten du igandean, hilak 18, *Autodeterminazioaz burujabetasuna* lemapean Bilbon burutuko den manifestazioan parte hartzera. Autobusa goizeko 11tan aterako da Frontoitik.

□ **Gasolindegia**
Begarako gasolindegia itxita egongo da urriaren 28ra arte, bertan egingo diren berrikuntza lanengatik. Kanpoaldeko itxura aldatzeaz gain, kotxeak garbitzeko makina berria eta kontsumitzaileek erabili beharreko surtidore automatikoak jarriko dira.

Euskalduna
Taberna
OSINTXU

ARTISAUTZAKO IZOKIA
GOXO-TOKI
D. Irola, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

LAGUN ARO
ASEGURUAK
Agentea:
RAMON IRAEGUI

RAC
VASCO NAVARRO

Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA

ORDEZKARIA
BERGARAN

VID-ART
Bidriera artistikoak

**BIDRIERAK - MURALAK -
ISPILUAK-KRISTAL
BISELATUZKO
ATEAK - etab.**

**Azal eiguzu zure ideia
VID-ARTEk
egingo dizu.**

BELANBIDE, Z/G - 20.570 BERGARA
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54



Bergarako ermittak

Non, noiz eta zergatik egin ziren

Non

- Auzoetan.
- Osin eta leiza zulo bazterretan.
- Bide bazterretan edo inguruetan.
- Bidegurutzetan.

- Iturri ondoan.
- Herriko edo kaleko sarrera eta irteeretan.
- Gurutz bidearen bukareran.
- Erlijio eta ohikunde paganoen tokietan.
- Santutxuak, beti bide

bazterretan.

Zergatik

- Kristautasuna zabalteko edo sendotzeko asmoarekin.
- Auzoko taldearen er-

lijio etxe.

- Jaungoikoaren, Amabirjiñaren edo Santuen deboziarako eta bere laguntza edo babesa aurkitzeko.
- Bidarien eta peregrinarien otoitz leku eta aterpe.
- Inoiz eta berandu, gurasoen nahia betetzeko.
- Arrazoi bat baino gehiagotatik.

Noizkoak

- Gehientsuenak erdiarokoak.
- Pare bat XVI. gizaldikoak.
- Bat XVII. gizaldikoa.
- Batzuk XIII eta XIV. gizaldikoak iruditzen zaizkit.
- Bat bazen 1.050. urtean.
- Zein urtetan eginak, nork daki?

38 ermita; asko dira

Fedea, erlijioa, debozioa ere asko behar, zantzarik gabe.

Imanol Sorondo

Biltoki

GAUZAK ERRAZ JARRIKO DIZKIZUGU!

xey

Sukalde eta bainugelarako mobleria
Diselnua eta goimallako kallitatea
5 urteko garantia

San Pedro z/g
Tfnoa: 76 34 00

PHILIPS



Teknologia eta diselnua
TB-BIDEOAK eta HI-FI MATCH-
LINEekipoak
K-200 telebista berriak

Barrenkale, 6
Tfnoa: 76 25 96

dekorazioa

Estiloko altzarriak eta gazteentzakoak
Alfonbrak. leiho-olihal, narruzko sofak,
tapizak, ...
apalngarriak

San Martin 2
Tfnoa: 76 43 51


Familia haundi bat

Odol-Emaleen Elkartearen Bergarako Ordezkaritzak, Berrigarak eskaintzen dion aukera hau aprobetxatuz, bere eskerrik beroenak eman nahi dizkie bergarar guztiei 25 urteotan bai diruz eta, batez ere, odolez eskaini duguten laguntza eskergagatik. Gure eskerrik beroenak Udalari, okinei, ardo-saltzaileei, jan-denda, diru-etxe, eta lantegiei eta baita Bergarako banda eta abesbatzei eta San Pedro parrokiari ere, guztien laguntzari esker lortuko baitugu hil honen 18a familia haundi baten moduan igarotzea. Izan ere odol-emaileok horixe baikara, familia haundi bat, eta halaxe esan ere egiten dugu geure artean. Eta egun haundi hau gurekin igarotzera etorriko direnei aurrez gure ongi-etorria azaltzen diegu eta adierazten dugu aurrera ere lanean jarraitzeko prest gaudela bergarar guztien odol-beharrak bete ahal izateko. Azkenik gazte guztiei gonbitea egiten diegu egiteko eder honetan partaide izan daitezten.

*Bergarako Odol Emaleen
Elkartea*

Bergarako Odol Emaleen Elkartek 25 urte bete ditu

Igandean ospatuko du bere egun haundia




ORAZI
Erretegia
ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

AE
ELKORO

Elektronika Arrasate, E.A.
Canal + eta Sony
Banatzaile ofizialak
Gure denda berria ezagutu ezazu
Olarte, 1 Tfnoa: 79 18 86. Faxe: 77 09 36.
ARRASATE

Duela 25 urte sortu zen Bergarako odol emaleen delegazioa. Ordutik gaur arte lan handia egin da, baina medikuntza aurreratzen den neurrian odol gehiago behar da, beraz beti egongo da zer eginik arlo honetan, nahiz eta odol emaleen kopurua etengabe handituz joan.



Odola eman ondoren, sabela ondo bete beharra dago indarrak berreskuratzeko

Odol emaleak: 25 urteko jarioa

Bergarako Delegazioa sortu zen garai hartan odola emategatik dirua kobratzen zen eta horrek arazo ugari sor zezakeen; diru beharrak bultzatuta jendeak gaixorik egonda ere edo komenigarri den baino maiztasun handiagoz eman nahi izaten zuen. Odola beharrezkoa zen, baina argi zegoen hura ez zela formularik egokiena.

Borondatezko emanaldiak

Egoera honetan borondatezko emanaldien beharra ikusi zen. Inguruko beste herri batzutan sortuak

ziren delegazioak eta Bergaran ere martxan jarri zen elizaren inguruko talde batek bultzatuta. 1.967. urteko urtarrilean bildu zen taldea lehenengo aldiz, eta martxo inguruan izan zen lehenengo ateraldia. 30 bat lagunek eman zuten odola hartan, Elementalak utzitako lekuan.

Hortik aurrera laguntzaile batek utzi zien etxebizitza batetan izan ziren ateraldiak. Fraiskozuri enparantzako 8. zenbakian dagoen etxe hark, ordea, bazuen arazo bat, 4. solairuan zegoela, alegia. 1.976an hasi ziren ateraldiak Seminarioan eta hortxe jarraitu dute gaur arte.

Urte guzti hauetan zehar emaleen kopurua izugarri handitu da, 848 emale daude gaur egun. Hamaika kontu izango dute kontatzeko honen inguruan, batzuek beste batzuek triste edo latzagoak.

Esaterako bergarar bat Gurutzetako ospitalean ingratatuta zegoela Bergaratik 23 lagun berarentzako odola ematera joan behar izan zutenekoa, edo Gipuzkoako 10.000. odol emalea Mari Karmen Otaño bergararra gertatu zenekoa.

Gaur egun hamabostero etortzen da Odol Bankuko talde bat Bergarara eta 40 edo 45 bat lagun joaten dira odola ematera ateraldi ba-

koitzean. Hala ere kopuru hori handitu daiteke, bate-tik odol emale berriak egiten badira, eta bestetik, daudenak sarriago joaten badira.

Odol emale gazteen beharra

Bergaran emale askok urtean behin edo bitan baino ez dute odola ematen, eta lasai joan daitezke hiru edo lau aldiz ematera delegazioko ordezkarien deia- ren zain egon gabe.

Honez gain beharrezkotzat jotzen da gazteen laguntza bai beraien odola ona delako eta baita emanaldi asko egin dezaketelako bizi osoan zehar, beraz, badakizue gazteok, anima zaitzte.

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

Zubieta 46
Bergara



Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE



Lourdes Arostegi, odol bankuko medikua:

"Odolak ez dauka ordezkorik"

- Zergatik da hain garrantzitsua odola ematea?

- Odolak ez du ordezkorik. Artifizialki egin daiteke antzeko produktu bat, baina ez ditu odolak dituen funtzio guztiak betetzen. Ebaketa batetan, esaterako, gaixoak odola behar duenean, benetazkoa sartu behar zaio, bere funtzio guztiak ongi bete ditzan. Horregatik da hain beharrezkoa odola.

- Nola eragiten dio emalearen gorputzari odola emateak?

- Printzipioz neutroa da, ez dio ez onik ez gaitzik eragiten. Bi aste beteko epe-

an gutxi gora behera gorputzak berriro produzitzen du emandako odola. hala ere hiru hilabete pasa arte ezin du berriro emale horrek odolik eman.

- Nolako eragina izan du HIESak odola ematearengan?

Jendeak ez dio odola emateari utzi. Hasieran sortu zen gutxi batzuren kontajioaren beldurra, baina horrek ez du inolako zentzurik, hemen erabiltzen ditugun tresna guztiak bota egiten bait ditugu erabilera bakar baten ondoren. Ez dago inolako arriskurik eta jendeak ez du beldurrik izan behar.

Zu ere izan zaitezke odol emale

Askok ez dute pentsatu ere egiten odola eman dezaketarik, "beste batzuk" egin beharreko gauza dela iruditzen zaie. Baina gutariko gehienak izan gaitezke odol emale. 18 urte baino gehiago baduzu, eta 65 baino gutxiago; 50 kilo baino gehiagoko pixua baduzu eta osasun onekoa bazara, lasai joan zaitezke odola ematera.

Ezin eman dezaketarik hepatitis eta epilepsia izan dutenak dira. Honez gain, noski, HIESa edo odolaren bitartez igortzen den gaixotasunen bat duenak ere ezin du odolik eman, baina bai gainontzekoek.

Odola ematera joaten zarenean lehenengo gauza tentsioa hartzen dizute. Neurri egokitan baldin badago Odol Bankuko mediku batek galdera batzu egiten dizkizu odola emateko moduan ote zauden jakiteko: ea botikarik hartzen duzun, azkenaldian gaixotasunik

jasan duzun, eta antzeko galderak.

Honez gain orritxo baten bitartez jakin erazten dizute HIESa harrapatu duzun susmoa baduzu ezin duzula odolik eman. Azkenik, behatz muturretik odol tanta bat atereaz "anemiaren frog" egiten dizute, emateko adina odol kantitate duzula ziurtatzeko.

Guztia ongi badago minutu gutxi batzutan kanpoan izango zara zure odolaren 400 zm. kubiko eman eta bokadillo txiki bat jan ondoren.

Zuri ordu erdi edo ordubete kendu dizun lan txiki honek beste norbaiten bitziza salba dezake. Argi dago merezi duela.

Hilaren 21ean 7etatik aurrera izango da hurrengo odol ateraldia Emaleen Delegazioak Telefonikaren aldapan duen lokalean.

Beste baterako utzi barik joan zaitez zure odola ematera, mesede handia egingo duzu eta.

Hepatitis eta epilepsia izan dutenek ezin dezakete odolik eman

TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak
Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

anezka

Udazkenerako oihalak eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

SURPE
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

Kopuruen dantza

Odol Bankuaren datuen arabera Bergaran 848 odol emale daude. 512 gizonak dira, 336 emakumeak.

18-32 urtekoak.....%32.01
 32-47 urtekoak.....%38.21
 48-65 urtekoak.....%28.85

1.991an Bergaran 922 emanaldi izan ziren. Osasunerako Nazioarteko Erakundeak dioenez urtean 1.000 biztanleko 50 emanaldi behar dira. Horren arabera Bergarak 775 beharko lituzke bere beharrak asetzeko, beraz, nahiko ongi dagoela esan daiteke.

Hala ere herri eta hiri handietan emanaldi kopurua asko jeisten denez, beharrezkoa da herri batzutan Osasun Erakundeak gomendatzen duen kopurua gainditzea.


Bergarako odol emaleak taldeka banatuta

O +	326
O -	128
A +	263
A -	78
B +	34
B -	10
AB +	7
AB -	2

Zergatik zara odol emale?



Andoni Azula
 23 urte, 4 urtez odol emale
 Ospitalean dagoen jendearentzat beharrezkoa da. Odola eman behar da.



Xabier Lazkano
 47 urte, 23 urtez odol emale
 Uste dut beharrezkoa dela. Ea odol emale izan nahi nuen galdetzera etorri zirenean baizekoa eman nien.



Balbina Cuevas
 61 urte, 7 urtez odol emale
 Ondo ikusten dut odola ematea. Guztiok egin beharko genuke, batez ere gazteek.



Mila Etxaniz
 33 urte, 3 urtez odol emale
 Beharrezkoa da, eta jende gehiago etorri beharko litzateke. Beldur piskat ematen du hasieran, baina ez da horrenbestera

Aldoka Maldoka
TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

Jabier LAZPIUR
 HARATEGIA

- ✓ Bertako okelak
- ✓ Naturalak, kontserbanterik gabekoak
- ✓ Etxean egindako produktuak


Komenio kalea, 2 BERGARA

ARDATZA

Brikolaketa

ATEAK eta HORMA ARMAIRUAK

Mahasterreka 4
 ☎ 76 18 93



GAZTELU

Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Foto Sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneiterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, = 76 00 50

Telefono erotikoaren zerbitzuari buruz zer eritzi daukazu?




Fernando Moreno
18 urte, ikaslea

Nere ustez adar jotze hutsa da. Beharrezkoak ez dira badaudelako estimulatzeko beste era batzuk.



Maria Pilar Gurrutxaga
44 urte, etxekoandrea

Ba ez dakit ezer horren inguruan baina entzun dudanez oso garestiak omen dira.



Antonio Caballero
34 urte, igeltseroa

Oso garestiak dira baina onerako den guztia ongi etorria izan dadila.



Nuria Corrius
20 urte, ikaslea

Ez dut ulertzen jendeak dirua gastatzea horrela. Tontokeria bat da... eta garestiegia gainera.

**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

KIZKUR

**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



BERTSO AFARIA

ANDONI EGAÑA eta JOXE AGIRRE

NON: Altsasu Elkarteon

NOIZ: Urriaren 24ean

ORDUA: 20.30ak


PREZIOA: 2.500

IZEN EMATEA: JARDUN elkarteon (Errotalde Jauregian edota 76 03 97 telefonora deituz

EPEA: Urriak 19a baino lehen

AUTOBUSA doan egongo da joan-etorria egiteko

ANTOLATZAILEA: JARDUN elkarteak



**Zinturoia
estutu
mutilak!!**

Ministro, parlamentari eta goi-mailako agintarien zerrandandaudenek euren soldatak izoztu dituzte, gauza bera egiten digutenean bakarrak ez garela eta goiko gizajoak ere egoera penagarri berria onartzeko gai eta gainera lehenengoak izan zirela ikus dezagun. Zinturoia estutu behar dela diote, eta suposa zitekeenez, beraiek lehen urratsa eman.

Zorteko jaio ginen, ez bait dute horrela agintaririk inguruetan. Dragoi Bolako heroien orde, protagonista adoretu eta ideialak: urtez urte defentsa gastu ikaragarriak onartzen dituzten ministro eta parlamentariak, oporrak Francoren Azorrean pasatzen dituen presidentea buru dutela; oinezko duen Jaurilaritza, eta beraiekin batera hanka-gizonekin luntzak egin edo egunetik gaurera kotxe ofizialez aldatzen duten Lehendakaria eta Diputatu Nagusiak, eta Donostiako Alkatetza lapurtu zuen Odon Elorza, Juan Guera bera ere, eta trapaperrakoak... denak sartuko zaizkigu orain Zinturoi Estuen Heroi Kuadrilan.

Hori bai, soldatak izoztetik izoztera alde handia dago, esaterako, aurrez aipatutakoen soldata izoztuak, irakiten jarriko lukete nire poltsikoa, seguru. Era berean zinturoiak estuzetik estutzera dagoen aldea handia da, eta estuzteketan euren estutu behar, hemen asko eta asko gara aspalditik Zinturoi Estuen Kuadrilako ohorezko partaide eta.

Beñardo Kortabarria



Everest

Ezin uka munduko gailurrik altuena izan denik azken asteotako gai izarra gure artean. Izan ere, Inurrategi atxabaltar anaiak iritsi zirela jakin zenetik beste bost euskal mendizalek lortu dute tontorra egitea. Eta berehala sortzen da galdera: hain erreza ote?

«Gorago, urrunago, indartsuago» dioen lema olinpikoak ez du balio Everesten kasuan, bera bait da altuena. Tontorra eginaz, munduko mendizale onenen elite txiki mugatuan sartzea lor daiteke, baina inor gaudituz edo kanporatu gabe. Eta zer gertatzen da? Bada, elite hori gero eta handiagoa dela, hots, gero eta elite zentzu gutxiago duela.

Euskaldunen adierazpenetan irakurri dugunean Hego Lepoko kanpamenduan hainbat espedizio elkartu zirela eta azken erasorako bata bestearen zelatan egon zirela inork ez zuelako aurrea irten nahi, kasik normala egiten zaigu imajinatzea gora eta behera dabilzten mendizale lerro luzeen trajina, gurutzatzean juxtu epa! elkarri boteaz, edo trajin hori ikusita tontorrean txistorra eta patxarana saltzeko txiringitza jartzea erabaki zuenaren aurpegi maltzur/alaiak.

Guzti hau gaurko gizarteak informazio errepikatuz baliogutzitzen joateko duen joeraren seinale. Baina kontuz! Everest betikoa da eta bertan jende asko hiltzen da urtero. Ez dezagun orain edonoren esku dagoenik pentsa.

Mikel Irizar



LIZAR
Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

Amets

Zerbitzuak haundiagotuz
HERGO karabanen
banatzailea



Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50


AMETS Tailerrak

Berezano Auzoa • OÑATI



LASA
JATETXEA

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ANDUZU

ERAIKUNTZA MATERIALEN BILTEGIA

*Azulejo erakusketa
• Onduline • P.V.C •
Blokeak • Pinturak •
Adreiluzko boteliatokia •
Mailazua • Garraioak egiten
ditugu •*

Telleriko Lana Pol. Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

LARRAÑAGA eta ZUBIA

Banatzailleak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

HAGIN KLINIKA

Idoia Iriarte Irueta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65




Patxi Azkargorta omendua

Pasa den irailaren 26an Patxi Azkargorta bergararrak merezitako omenaldia jaso zuen Azpeitian, bertan ia bere bizi guztian pelotaren alde egin duen lan bikainagatik. Patxik 66 urte ditu eta 40 inguru eman ditu pelotaren mundu hortan lanean; haurrei pelotan lehen urratsak ematen laguntzen, partiduak antolatzen, epaile lanetan... eta abar luze batean eta Azpeitiako Ilunpe Pelota Elkarteak eta Azpeitiako Udalak



lan guzti hori eskertu nahi izan zioten. Han izan ziren, besteak beste, Azpeitiako alkatea, Udal Musika Banda, pelotari ugari, dantzariak eta familiartekoak noski, Patxik guztion errekonozimendua eta opari mordo bat jaso zituela. Festa bete-betea izateko, ondoren, guztiak Izarra Jatetxean bildu ziren majo afaltzeko eta han ere festa giroa izan zen nagusi Lizaso aita eta Agirre bertsolarien eskutik.

PUXKIN OINETAKOAK



D. IRALA.
BERGARA

Tfnoa: 76 21 17

Mujika Jantxidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91



□ **Hiru bergararak Udal Pelotalekuan**

Joan den larunbatean Bergarako Frontoian Bergarako hiru pelotari profesionalak bildu zitzaizkigun. Lehenbiziko partiduan, atzekaldean lan ona egin zuten arren, Aitor Oregik, Kalongerekin bikotea osatuz, Goñi eta Andueza aurrean aurka 22 eta 11ko emaitzarekin galdu zuten. Estelarrak, berriz, uste baino ikusmin gutxiago sortarazi zuten eta ez zen espero zitekeen jendetza etorri Bergarako pelota denboraldiaren hasierara. Partidua ez zen zaleen gustokoa izan eta Etxaniz eta Zezeagak 22 eta 18 irabazi zieten Unanue eta Belokiri. Bergararak ondo aritu baziren, ezin daiteke gauza bera esan gaur pelotako garaia bihurtu den Belokiri buruz, naparrak kale ugari egin zituen eta.




□ **Hiru hankako txahala**

Inolako saririk lortu ez zuten arren argazkian duzuen hiru hilabeteko txahala erakusteko buruko ferriak izarretako bat izan genuen. Eta ez bere kalitatea aurkeztutako txahala baina baino hobea zelako, baizik eta jaiotzerakoan, lau hanka izan behar izan zuten, hirurekin etorri zelako mundura. Arruako Igarza Haundi baserriko txahala se Mari Iriondok, aintzina zirkoetan egiten ohi zen bezala, borondatea erakusteko katzan zien kuriositate hau ikustera hurbiltzen ziren gutzietan.


Zertan dihardute ba?

ZABALETA-IRIZAR



Pablo Irizarrek ia eskuan du *Clio* Txapelketa, igandean Albaceten lorturiko garaipenaren ondoren eta Aitor Zabaleta 2. izan zen Santo Emilianoko Igoeran, Mendiko Txapelketako lehen postuari eutsiz.

TXEMA MUÑOZ



Bartzelonako Eskola Politeknikoan Bideo eta Argazkilaritza ikasketak burutu zituen 25 urteko txemeari argazki erakusteko izango da ikusgai Erreteriko Gaspar Galerian urriaren 28ra arte.



Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

Umore giroan

Ill eifñ biar nok ala?

Eibarren oitxuria zan batedonbat naiko gaixo zeguanian, ari bisitxa eitia txanpan botilla bat eruanaz. Egun baten, senar-emazte batzuk juan ziran bera ikustera, eta zer eruango-ta, beste ezerekin pentsau barik, pastel batzuk eta txanpan botillia eruan zetsen.

"Balbotin"ek txanpan botillia ikusi zebanian, bildurtuta, esan zeban:

- Zer baiña, ill eifñ biar nok ala?

* * *

Tunela eitzekeo barautza

Bazeguan Patxiko Arikixaneko dendan. Orretan etorri zan gazte bat eta ogei milimetroko barautza eskatu biarrian, eskatu zeban ogei metro-

kua.

A entzun ebanian, Patxikok:

- Zer, ugezabak tunela eifñ biar jok Eibartik Durangoraiño ala?

* * *

Non saldu a dana?

Patxiko ta bere lagun bat sartu dira "Mari Kati-llu"n tabernara. An ikusi zitxuen gazte batzuk jo ta su karta jokuan. Orretan esan zetsen lagunak:

- I, Patxiko, orrek guztio biarrian alako amorrua ipiñiko baleikiek...

Ta Patxikok:

- Ta zeifnek saldu arek danak?

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

San Pedroko sakristia

XVII. mendean zehar, S. Pedroko parroki-elizak sakristia berri bat bereganatu zuen, kronologia berantiarrekoa izan arren, errenaisantzako formulei eusten diena. Eraiketa prozesua luzea izan zen.

1.613an elizako burualde atzean sakristia berria egitea erabaki zen, zaharra (burualde ondoan kokatua Ebanjelioaren aldetik) txikia eta estua gertatzen zen eta. Hargintza lana oso garestia izan arren, kasu honetan bazegoen 200 dukatetako uzkontza bat Ayardi baxilerrak eskainia, eta nahiz eta alkateak aurkako jarrera agertu elizako obrak lehenik amaitzea egokiagotzat jotzen zuelako, proiektuari ekin zitzaion. 1.615erako obrak nahiko aurreraturik zeuden eta 1.626an teilatuak amaitu ziren; halabaina, harlagaitzezko ormak eta zurezko estaldura bat baino ez zeuden eginak, behar hainbatekoa ez zena. Urteak igaro behar izan ziren ganga eraikitzezko aukera emango zuen donazioa jaso ahal izateko. Emaila honako honetan An-

tonio de Jauregi Salazar jauna izan zen, Indietatik 2.000 peso bidaliz, bakoitzak zilarrezko zortzi errealeko balioa zuelarik, obra desberdinak burutzen lagundu zutenak, aztergai dugun ganga horien artean sarturik. Exekuzio-eskritura Azkoitiko bizilagunak ziren Juan de Zaldúa eta Juan Martínez de Agirre hargin maisuekin egin zen 1.646ko ekainaren 19an, ganga bi urtetan eraiki zutelarik lehenak emandako trazei jarraituz.

Sakristian egoitza koardangeluar zabal batekin egiten dugu topo, bere gainean nerbio kurbatuek konplikaturik dagoen gurutze-gangaz estaltzen dena; hau elizako nabeketakoa baino aberatsagoa gertatzen da eta baita oso antzekoa ere. Denboran aurreratu izan arren, Zalduek ez du honetan eraikin barrokoa egiten, herrialdean sakonki erroten errenaisantzako formak bete-bete eusten baizik.


M. J. Aranburu eta Jesus Gil Masa

ELKAR

- ✓ Fotokopiak koloretan
- ✓ Enkuadernazioak
- ✓ Jendearentzako faxa
- ✓ Plastifikazioa
- ✓ Planoen kopiak

Harruriaga 1, Behea. Tfnoa: 76 58 16

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- METALEZKO AROZLANAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

BONOFOTOA



M. A. Eikoro berezibor



Maria Dolores Gallastegi

Maria Dolores Gallastegik jaso du aste honetan BONOFOTOko saria. 10.000 pzta eman diogu berak jarritako erantzuna, argazkian agertzen zen baserria, **San Miguel auzoko Sagastizabal baserria zela, zuzena zelako.**
ZORIONAK!!

Orain dela zenbat urte eraiki zuten argazkian agertzen den kanpandorrea?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Aste honetako
saria : 10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara




BERGARAKO UDALA



KIUB

kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa



KIUB: Ibargarai kalea z / g (azokan)
ORDUTEGIA: 10 - 12 eta 4 - 6
TELEFONOA: 76 40 68

✓ **Kontsumo alorrean edozein zalantza baldin badaukazue informazioa jasotzera jo dezakezuen Udal zerbitzua da.**

✓ **Irregularitasunaren bat salatu nahi baduzu eta ez badakizu non edo nola egin, etor zaitez zure KIUBera**

Bixente Pagaldai: "Egun oso berezia da maratoiarena"

Bixente Pagaldai angiozartarrak Donostiako Maratoiaren 15 edizioak amaitu ditu. Domekan ere ezin zuen hutsik egin eta oraindik, 44 urtekin, sasoiko sentitu eta jarraitzeko asmoa duela azaldu digu.



zaintzen naiz; egunero 20 Km. inguru korritu eta elikadura ere asko kontrolatzen dut. Ez dakit, baina garai honetan beti forma onean heltzen naiz.

- Anekdotaren bat izango duzu 15 urteotan...

- Orain 6 urte topean hasi eta 20. Km.ra heldu orduko kristoren marka egiten ari ginen. Gero, karo, pajara ere ez zen makala izan; banku baten jarri eta lo hartu nuen. Agure batek esnatu ninduen eta poliki poliki martxan jarri eta bukatzea lortu nuen.

- Noiz arte korritzeko asmoz?

- Gehiago ezin den arte. Neretako urteko egunik bereziarena da eta lana ere utziko nuke maratoia korritzeko. Markatuta izaten dudana fetxa bat da. Izugarriko giroa izaten da.

- Nola hasi zinen korrikan?

- 29 urtekin hasi nintzen, berandu. Beti gustatu izan zaizkit kirolak eta maratoia ezagutu nuenean izugarri gustatu zitzaidan. Azpeitiako zezen-plazan ere apostu bat irabazi nuen orain 8 urte 10 Km.tan...

- Gero eta gogorragoa egiten al da maratoia?

- Ez dut lehen beste entrenatzen. Urteak badauz-

kat eta zeozer jeitsi dut baina akabatzeko problemarik ez. Nere markarik onena 2 ordu eta 29 minutukoa da eta aurtan 2 ordu eta 50 minutu egin ditut.

- Prestaketa berezirik?

- Uztailean hasi nintzen prestatzen, urtero berdina egiten dut: korrika eta gimnasia. Hori bai, urtean zehar normal ibili arren, azken hilabetean asko

□ **Eskubaloia**
Bergarako K.E.ko senior gizonetako eskubaloia taldeak 20na berdindu zuen, larunbatean Arrasaten jokaturiko ligako lehen partiduan. Larunbatean, hilak 17, Bidebietaren aurka jokatu dute arratsaldeko Setan Kiroldegian.

□ **Saskibaloia**
Senior gizonetako Altsasuren aurka 60-69ko emaitzarekin galdu zuten larunbatean Bergaran. Astebukeraren saskibaloia talde guztiek kanpoan jokatu dute.

□ **Futbola**
Bergarak 0 eta 2 irabazi zion Trintxerperri larunbatean. Zelaia eta Franek sartu zituzten golak eta Bergarak Unibertsitatearen aurka jokatu du igandean, 4retan, Agorrosinen.

III. Fontsi Memoriala


Datorren larunbatean, urriak 24, Alfonso Miner «Fontsi» zenaren oroimenezko III. Memoriala jokatu da Seminarioan. Goizeko 8etan 12 orduko futbito txapelketa hasiko da (izen-ematea asteazkenean itxiko da Ariznoa, Deportibo eta Pol-Polen, ekipo bakoitzak 3.000 pt. ordainduz), 11tan Mendi Bizikletako II. Trabiesa Herrikoa korrituko da eta bildutako guztiei salda eta txorixoa banatuko zaie 12.30etan. Arratsaldean, berriz, trialsin erakustaldia izango da. Setan II. Herri Milla jokatu da, 7etan futbito txapelketako finala, eta 8etan sari banaketa eta memorialari bukaera emango zaio.



Gracian

Usaindegia • Merzeria

Bidekurutzeta 6, Tfnoa: 76 10 25
BERGARA



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA



Basterraren kolejixoko futbol ekipoa. 1.949.

Ez dago dudarik Bergaran futbolak historia zabal eta oparoa izan duela eta etxe zokoetan dauden gai hori buruzko argazki ugariak garbi azaltzen digute hori. Atera izan dugu lehenago auzoetako futbol-talderik etab. Oraingoan, eskolarteko futbol txapelketa batean parte hartzen zuen ekipoa baten erretratuak dakargu. Berriemailean esan digunez, «Frente de Juventudes»ek antolatutako txapelketakoa omen da, Agorrosineko lehenengo futbol-zela zaharrean jokaturako finalean ateratakoa. Emaitza hiru eta batekoa izan omen zen aragazkiko hauen alde. Atzean ikusten den tribuna zaharra haizeak bota omen zuen.

Izen-abizenak, ezkerretik eskumara:

Aurreko ilaran: Sabas Igartua (gero Bergarako lehen ekipoa jokatu zuena), Jesus Kalboetxeaga, Paulin Arriola eta Angel Ruiz (ezkutuan).

Atzeko ilaran: Felix Altuna, Gotzon Villar, Ramon Agirrezabal, Santi Galdos, Jesus Arregi, Pako Lonbide eta Jabier Laspiur.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Sabas Igartua*

Bidekurutzeta 6, behea
Tfnoa: 76 57 68
BERGARA

aroa
boutique



PortuGas

NATURGAS, S.A. enpresaren kolaboratzailea

Gas, berogailu eta
aklimatazio
lanetarako
proiektuak eta
instalazioak

ALEX GARDOKI
☎ 76 27 17

ETXEBIZITZA

Lokal bat alokairuan Iri-
zar 2an.
☎ 76 13 32 / 76 25 97.

Zaragozan pisu bat osa-
tzeko neska euskaldun
bat behar dugu.
☎ 75 19 98 / 79 28 71.

Bergaran herriaren erdi-
aldean ileapaindegia
alokatzen da. ☎ 76 16 17.

Taberna alokatuko nuke
☎ 76 53 73.

Pisua salgai Bidekuru-
tzetan. (5.000.000).
☎ 76 09 36.

Artekalen pisua salgai
☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Espalo-
ian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. ☎ 76 03 31.

Pisu amueblatua aloka-
tzen da Bergara erdian.
☎ 12 12 71.

Espalolan garajea salgai
☎ 76 23 27.

Pisua salgai Martokuan:
bi gela, saloia, sukaldea,
bainua eta trasteroa.
☎ 762402 / 94-658 24 68.

Garajea salgai Santa
Marina inguruan.
☎ 76 32 70.

Antzuolan etxebizitza
salgai Ibarrodo 4an.
☎ 76 62 09.

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. ☎ 76 03 31.

SALDU-EROSI

Oinarrizko Dibujo Tekni-
koko klaseak hartuko ni-
tuzke. ☎ 76 31 55.

Urezko berogailuak eta
berogailu elektrikoak
salgai. ☎ 76 13 60.
(16.00etatik aurrera)

SUZUKI DR BIG motorra
salgai.
☎ 76 50 67. (Ander).

1.992-93 ikasturterako,
egunero Donostlara
joan-etorria egiteko, au-
tobusa bete nahi dugu.
Interesatuta bazaude
deitu 77 00 65era.

2. eskuko paseozko bi-
zikleta bat erosi nahi nu-
ke. ☎ 76 32 70. (Idoia).

3 atedun Opel Corsa
1.300 GTa salgai (SS-X).
☎ 76 05 92 (gauzez).

Eskiatzeko bota italia-
rrak salgai (43a). Berriak,
oso merke!! ☎ 76 38 72.

Ingeles kurtso bat kase-
tetan erosiko nuke.
☎ 76 54 26.

XR 2 i kotxea salgai. 2
urte, berri-berria. 55.000
Km. SS-AG. ☎ 76 55 80.

Petrollozko estufa sal-
gai. ☎ 76 50 05.

Master System II-A sal-
gai. 6 joku eta mando bat.
Egoera onean. 25.000
pezeta. ☎ 79 06 61.

Kitarra akustikoa salgai
(15.000). ☎ 76 11 89.

2. eskuko mobilette bat
erosiko nuke. ☎ 76 03 97.

Peugeot 205 XL bat
salgai. 6 urte SS-W.
☎ (945) 27 92 73 (arra-
tsaldez) / 76 05 23 (ga-
uez).

Mintendo berri-berri bat,
3 mando eta joku batekin,
salgai. ☎ 76 56 97.

LANA

Neska behar da etxeko
lanak egiteko. ☎ 76 31 58.

Arratsaldetan galxoak
eta edadetuak zaintzen
lan egingo nuke.
☎ 76 46 90.

Emakumezko batek hau-
rrak zaindu eta etxeko
lanak egingo lituzke.
☎ 76 36 06 (Marisol).

Mutil batek kalitatezko
ilustrazioak, erretratuak,
irudiak etab. marraztuko
lituzke ☎ 76 25 59.

Etxeko lanak egin eta
umeak zainduko lituzke
neska batek ☎ 76 06 98
(Amaia).

Neska batek etxeko la-
nak egin edota umeak
zainduko lituzke.
☎ 76 57 38.

Neska batek etxeko la-
nak egin eta umeak
zainduko lituzke.
☎ 76 45 53.

Hildakoak

Marcelina Areitio Arkarazo
Urriak 11, 75 urte

Jaiotakoak

Nekane Zapata Clemente, irailak 30
Nere Leninsoro Hernandez, urriak 3
Alen Irureta Etxaide, urriak 4
Unai Retolaza Ugarte, urriak 5
Ainhoa Goienetxe Murgiondo, urriak 5
Gorka Heis Lasheras, urriak 7

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

TOKI-ONA
Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak / Txiki-
ziztjak
Kazalatuak / Txabiernoak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA


Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



FAGOR 

SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO GARANTIA

VI. BIZI ALTERNATIBOA

URRIAREN
26tik
AZAROAREN
1a arte

ANTOLATZAILEAK:

✓ Drogomenpekotasunen
Prebentziorako Udal
Zerbitzua.

✓ Kieol eta Kultur
Zerbitzuak.

- MOISES AZPIAZU DANTZA TALDEA
- XAMATZ DANTZA TALDEA
- ARITZETA ABESBATZA
- KUKUMA ZANKO TALDEA
- DAXKA, REQUIEM, SPOK eta LA DUDA ROCK TALDEAK
- GAZTETXEA
- OIHULARI ANTZERKI TALDEA
- EGUZKI
- IRRATIZALEAK

HELBURUAK:

✓ Drogen gehiegizko kontsumoa bultzatu duten aktibitateen ordez, beste ekintza ezberdin batzuk erakustea
✓ Bizi Alternatiboak ez du ekintza ezberdin batzuen eskaparate hutsa izan nahi, baizik eta herriko zenbait pertsona eta taldek urtean zehar egiten duten iharduren berri eman nahi du, bakoitzak bere aukerak izan ditzan.

PARTE HARTZAILEAK:

- ASKE DENBORA LIBREKO TALDEA
- ZERAMIKA TALDEA
- BERGARAKO KULTUR EKINTZA
- EMAKUMEEN TALDEA
- TAUN TAUN TXONTXONGILO TALDEA
- JUBILATUEN ETXEOAK
- PINTOREAK
- IRRATIZALEAK
- POL POL ARGAZKI TALDEA

- JARDUN ELKARTEA
- EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
- LOKATZA ZIKLISMO TALDEA
- BADMINTON TALDEA
- MUSIKA ESKOLAKO GAZTEEN BANDA eta TRIKITILARIAK
- ARIZNOA GIMNASIA ERRITMIKO TALDEA
- XAKE TALDEA